# I ARABAKO FORU ALDUNDIA

## Administrazio Xedapenak

*Diputatuen Kontseiluaren Foru Dekretuak*

### EUSKARA, KULTURA ETA KIROL SAILA

**3318**

**Diputatuen Kontseiluaren 21/2013 FORU DEKRETUA, ekainaren 18koa, aldatzen dituena otsailaren 28ko 15/2012 Foru Dekretuaren bidez onartzen diren foru aldundi honen museotako sarreren prezio publikoak.**

Arabako Foru Aldundiaren Euskara, Kultura eta Kirol Sailaren ardura da Arte Ederren Museoa, Natura Zientzien Museoa eta Arma Museoa kudeatzea.

Museoak ondarea zaintzen eta zabaltzen bete behar duten egiteko sozialaren arabera, Euskara, Kultura eta Kirol Sailak uste du egokia dela jendea inplikatzea gure museoen mantentzean, horien kalitate eskaintza gorde behar bada.

Arabako lurralde historikoko sektore publikoa osatzen duten erakundeen tasa eta prezio publikoen lege araubidea arautzen du 64/1989 Foru Arauak, Tasa eta Prezio Publikoei buruzkoak, azaroaren 23ko 33/1998 Foru Arauak zati batean aldatuak.

Arau hori betetzeko, Diputatuen Kontseiluaren otsailaren 28ko 15/2012 Foru Dekretuaren bidez arautu ziren Arabako Foru Aldundiaren museotako sarreren prezio publikoak, hots, Arte Ederren Museokoak, Bibat Museokoak, Natura Zientzien Museokoak eta Arma Museokoak.

Foru dekretu hori onartu zela urtebete igaro da, eta tartean erakundeek, Biltzar Nagusiek eta museoetakoekin elkarlanean diharduten zenbait gizarte eragilek aurkeztutako oharrak aztertu dira. Horiek horrela, sarrera gizartekoiagoak jartzea proposatzen da, eta sustatu egingo dira ikasle taldeen, familia ugarien eta 65 urtetik gorakoen bisitak. Horrez gain, doan izango dute ondokoek: 12 urtetik beherako ikasleek, Gazte Txarteldunek, irakasleek, talde gidariek, langabeek, ICOMeko kideek, museoen arloan diharduten elkargo profesionaletako kideek, ezinduek, diru sarrerak bermatzeko errenta jasotzaileek eta kotizatzen ez duten pentsiodunek. Era berean, doan izango da sarrera hileko lehen larunbatean.

Museo eta Arkeologia Zerbitzuaren buruak egindako txostena ikusi da.

Horregatik, Euskara, Kultura eta Kirol Saileko foru diputatuak proposatuta, eta Diputatuen Kontseiluak gaur bertan egindako bilkuran gaia aztertu ondoren, honako hau

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Diputatuen Kontseiluaren otsailaren 28ko 15/2012 Dekretuaren 3. artikulua aldatzea, eta ondoko prezioak jartzea:

| | |
|---|---|
| Banakoak | 3,00 euro |
| Taldeak (gutxienez 10 lagun) | 2,00 euro pertsonako |
| Ikasleak | 1,00 euro |
| Familia ugariak | 1,00 euro |
| 65 urtetik gorakoak | 1,00 euro |
| 12 urte edo gutxiagokoak | sarrera doan |
| Gazte txarteldunak | sarrera doan |
| ICOMeko kideak | sarrera doan |
| Museoekin zerikusia duten elkargo profesional eta elkarteetako kideak (aldez aurretik eskaera egin behar dute) | sarrera doan |
| Ezinduak | sarrera doan |
| Irakasleak eta talde gidariak | sarrera doan |
| Langabeak | sarrera doan |

# DIPUTACIÓN FORAL DE ÁLAVA I

## Disposiciones Administrativas

*Decretos Forales del Consejo de Diputados*

### DEPARTAMENTO DE EUSKERA, CULTURA Y DEPORTE

**3318**

**DECRETO FORAL 21/2013, del Consejo de Diputados de 18 de junio, que modifica los precios públicos por la venta de entradas a los Museos de esta Diputación Foral aprobados por Decreto Foral 15/2012, de 28 de febrero.**

El Departamento de Euskera, Cultura y Deporte de la Diputación Foral de Álava se responsabiliza de la gestión de los Museos de Bellas Artes, Bibat, Museo de Ciencias Naturales y Museo de Armería.

De acuerdo con la función social que deben cumplir los museos como instituciones destinadas a la preservación y divulgación del patrimonio, el Departamento de Euskera, Cultura y Deporte considera adecuado implicar a la población en el mantenimiento de nuestros museos, al objeto de mantener una oferta de calidad en los mismos.

La Norma Foral 64/1989 sobre Tasas y Precios Públicos modificada en parte por la Norma Foral 33/1998 de 23 de noviembre, establece en su articulado la regulación del Régimen Jurídico de las tasas y precios públicos de las Entidades que componen el Sector Público Foral del Territorio Histórico de Álava.

En cumplimiento de esta norma, por Decreto Foral 15/2012, de 28 de febrero, del Consejo de Diputados, se aprobó la normativa de precios públicos de la venta de entradas a los Museos de la Diputación Foral de Álava: Museo de BBAA, BIBAT, Museo de CCNN y Museo de ARMERÍA.

Transcurrido un año desde la aprobación de este Decreto Foral y analizadas las observaciones presentadas por Instituciones, Juntas Generales y los diversos agentes sociales que habitualmente colaboran con los museos, se propone establecer unos precios de visita de corte social, impulsando las visitas de grupo como estudiantes, familias numerosas y mayores de 65 años y la gratuidad para el mundo escolar de hasta 12 años de edad, jóvenes portadores de Gazte-Txartela, profesionales de la enseñanza y guías de grupos, desempleados, miembros del ICOM, miembros de Colegios Profesionales y Asociaciones dedicadas a la temática del Museo, discapacitados, receptores de renta de garantía de ingresos, pensiones no contributivas, así como todos los sábados primeros de mes del año.

Visto el informe emitido por el Jefe de Servicio de Museos y Arqueología,

En su virtud, a propuesta de la Diputada de Euskera, Cultura y Deporte y previa deliberación del Consejo de Diputados en sesión celebrada en el día de hoy,

DISPONGO

Primero. Modificar el artículo 3 del Decreto 15/2012, del Consejo de Diputados, de 28 de febrero, estableciendo los siguientes precios:

| | |
|---|---|
| Individual | 3,00 euros |
| Grupos (mínimo 10) | 2,00 euros pax |
| Estudiantes | 1,00 euro |
| Familias numerosas | 1,00 euro |
| Mayores de 65 años | 1,00 euro |
| Hasta 12 años | acceso gratuito |
| Gazte txartela | acceso gratuito |
| Miembros del ICOM | acceso gratuito |
| Miembros de Colegios Profesionales y Asociaciones dedicadas a la temática del Museo (previa solicitud y presentación) | acceso gratuito |
| Discapacitados | acceso gratuito |
| Profesores y guías de grupos | acceso gratuito |
| Desempleados | acceso gratuito |

(Arabako lurralde historikoan bizi direnak)
Diru sarrerak bermatzeko errenta jasotzen dutenak

| | |
|---|---|
| (Arabako lurralde historikoan bizi direnak) | sarrera doan |

Kotizatzen ez duten pentsiodunak

| | |
|---|---|
| (Arabako lurralde historikoan bizi direnak) | sarrera doan |
| Hileko lehenengo larunbata | sarrera doan |

Museoetako banakako bonuak (salbuespena duen banakako aukeraren bat eskuratu dutenek ezin dituzte bonu hauek baliatu)

| | |
|---|---|
| Bi museotarako bonuak | 5,00 euro |
| Lau museotarako bonuak | 9,00 euro |

Bigarrena. Diputatuen Kontseiluaren otsailaren 28ko 15/2012 Foru Dekretuaren gainerakoari bere horretan eustea.

Hirugarrena. Foru dekretu hau ALHAOn argitaratzen den egunaren biharamunean sartuko da indarrean.

Laugarrena. Foru dekretu hau ALHAOn argitaratzea.

Vitoria-Gasteiz, 2013ko ekainaren 18a.– Diputatu nagusia, JAVIER DE ANDRÉS GUERRA.– Euskara, Kultura eta Kirol Saileko diputatua, ICIAR LAMARAIN CENITAGOYA.

*Diputatuen Kontseiluaren Erabakiak*

## INGURUMEN ETA HIRIGINTZA SAILA

MENDI ZERBITZUA

**3323**

**Diputatuen Kontseiluaren 306/2013 ERABAKIA, ekainaren 18koa, onura publikoko adierazten duena Bastidako 12 poligonoko 476 lurzatia, eta hura Mendien Katalogoan sartu eta ondorioz onura publikotik desafektatzen duena; baita 12 poligonoko 269 lurzatia Mendien Katalogotik kanpo uzten duena ere, Bastidako Udalak baso finkak trukatzeko eskatutako prozeduraren baitan.**

2013ko ekainaren 6an, Ingurumen eta Hirigintza Zuzendaritzako Mendi Zerbitzuak jakinarazi zuen Bastidako Udalak, Aldundiaren Erregistro Orokorrean 2013ko apirilaren 29an aurkeztutako idazki bidez (sarrera zk.: 7732), eskatu zuela trukatzea udalerri horretako katastroko 12 poligonoko 269 lurzatia –baso lursail publikoa– 12 poligonoko 476 lurzatiarekin –titulartasun pribatuko baso finka–. Truke espedientea A.S.T.-k, lurzati pribatuaren titularrak, eskatuta abiarazi zen. Titulartasun publikoko lurzatia, behin betiko mugaketa irmoa izan arte, aipatutako udalarena den “El Encinar” izeneko onura publikoko 167 mendiaren zati da.

Bastidako Udalak, dagokion eskumena erabiliz, lursailak tasatzeko peritu txostena idaztea eskatu zion Arabako Foru Aldundiko Mendi Zerbitzuari –txostena 2009ko abuztuaren 28an egin zen–, Mendien Arautegiak 186. artikuluan xedatutakoa betetzeko. Arautegi hori otsailaren 22ko 485/1962 Dekretu bidez onartu zen, zeinak indarrean jarraitzen duen azaroaren 21eko 43/2003 Legeak, Mendienak, xedapen indargabetzaile bakarraren bigarren puntuan adierazitakoaren arabera.

2010eko abenduaren 21ean, Bastidako alkate Ignacio Gil Orivek 234/2010 Dekretua eman zuen, baimendu zuena aipatutako trukearen bidez besterentzea gauzatzea, horretarako baldintza izanik onura publikoko mendiaren mugaketa espedientearen behin betiko ebazpen irmoa eskuratzea. Ondoren, 2013ko apirilaren 19an, idazki bat bidali zuen eskatzeko Bastidako 12 poligonoko 269 lurzatia poligono horretako 479 lurzatiarekin trukatu eta besterentze espedientearekin jarraitzeko, eta alegatu zuen, nahiz eta denbora dezente igaro, oraindik ez zela espedientea ebatzi.

(Residentes en TTHH Álava)
Perceptores renta garantía ingresos

| | |
|---|---|
| (Residentes en TTHH Álava) | acceso gratuito |

Perceptores pensiones no contributivas

| | |
|---|---|
| (Residentes en TTHH Álava) | acceso gratuito |
| Primer sábado de mes | acceso gratuito |

Bonos individuales Museos (exclusivamente para atender las opciones individuales sin exenciones)

| | |
|---|---|
| Bonos dos Museos | 5,00 euros |
| Bonos cuatro Museos | 9,00 euros |

Segundo. Mantener el resto de Decreto 15/2012, de 28 de febrero del Consejo de Diputados en todos sus términos.

Tercero. El presente Decreto entrará en vigor al día siguiente de su publicación en el BOTHA.

Cuarto. Publicar la presente resolución en el BOTHA.

Vitoria-Gasteiz, 18 de junio de 2013.– El diputado general, JAVIER DE ANDRÉS GUERRA.– La diputada de Euskera, Cultura y Deporte, ICIAR LAMARAIN CENITAGOYA.

*Acuerdos del Consejo de Diputados*

## DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE Y URBANISMO

SERVICIO DE MONTES

**3323**

**ACUERDO 306/2013, del Consejo de Diputados de 18 de junio, que declara de utilidad pública y la inclusión en el Catálogo de Montes de la parcela número 476, polígono 12, de Labastida y la consiguiente desafectación de utilidad pública y exclusión del Catálogo de Montes de la parcela 269, polígono 12, dentro del procedimiento de permuta de fincas forestales instado por el Ayuntamiento de Labastida.**

Con fecha 6 de mayo de 2013, el Servicio de Montes de la Dirección de Medio Ambiente y Urbanismo informa que el Ayuntamiento de Labastida, en escrito presentado en el Registro General de la Diputación con fecha 29 de abril de 2013, número de entrada 7732, solicita se tramite la permuta del terreno forestal público identificado en el catastro de su municipio con la parcela número 269 del polígono 12, por la finca de titularidad privada, igualmente finca forestal, parcela número 476 del polígono 12. El expediente de permuta se inicia a instancia de A. S. T., titular de la citada parcela privada. La parcela de titularidad pública, a expensas de lo que resultase del deslinde definitivo y firme, forma parte del monte de Utilidad Pública número 167 denominado “El Encinar” de la pertenencia del citado ayuntamiento.

En ejercicio de la competencia correspondiente, el Ayuntamiento de Labastida solicita informe pericial de tasación de los terrenos al Servicio de Montes de la Diputación Foral de Álava, informe emitido con fecha 28 de agosto de 2009, en cumplimiento de lo dispuesto en el artículo 186 del Reglamento de Montes aprobado por el Decreto de 1962 de febrero de1962, en vigor según el punto 2 de la Disposición derogatoria única de la Ley de Montes, Ley 43/2003 de 21 de noviembre.

Con fecha 21 de diciembre de 2010, Ignacio Gil Orive, Alcalde de Labastida dicta el decreto 234/2010 por el que autoriza la enajenación mediante la permuta solicitada condicionándola a la resolución firme y definitiva del expediente de deslinde del monte de Utilidad Pública; posteriormente, con fecha 19 de abril de 2013, remite escrito solicitando se continúe el expediente de enajenación de la parcela 269 del polígono 12 de Labastida mediante permuta con la parcela 476 del mismo polígono, alegando que a pesar del tiempo transcurrido no se ha producido resolución del citado expediente.